

Munduari bira uretako motoan.

Egunkariaren irakurketa bezain tipikoki modernoa dena, gaurkotasunarekin gosaltzeko eguneroko errutina –beti hain bizia–, mundua irakurtzeko eguneroko keinua, jakinaren gainean egotearena, gaur egun pantailan eta pantailaren bidez egiten dena nagusiki, harridura-ariketa iraunkor bilakatu da eta bilakatzen ari da gero eta gehiago.

Komunikabide guztiek, etengabe berritzen diren edizio digitalekin, informazio-itsasoetan nabigatzeko aukera eskaintzen dute, baina aukera horrek berak, promes horrek berak albiste bakar batean sakontasunean murgiltzea eragozten digu. Honela definitzen du Nicholas Carr-ek: "Iraganean urpekaria izan nintzen hitzen itsasoan. Orain gainazalean irristatzen naiz, uretako motoaren gaineko norbait bezala".

Mikel Telleria ere uretako motoan ibiltzen da, denak bezala, baina berea "klik" guztiak gorde eta artxibatzen dituen nabigazioa da, bere parean topatzen dituen prentsako titular guztiak, harrigarriak, hutsalak, friboloak, larriak, komikoak edo kezkarriak direnak. Kontzientzia politikoan, senean eta interes pertsonaletan oinarrituta ateratako Telleriaren titularrak bere nabigazioaren lekuko dira, bere nabigazio-egunkaria, ez baitago itzuli beharreko Itakarik, Horacio Potel-ek esango lukeen bezala, ez dago jatorrizko, ezta helmugako porturik ere, hasierarik eta amaierarik gabeko betiereko nabigazio alderraia baizik. Artistak bildu eta poema dadaista izango balitz bezala aurkezten dituen titularrak, gizakiaren eguneroko hondoratzearen hondarrak, itsasoratu eta ataka gaingitu ezin dela jakin arren, nabigatzeko ahalegin ikaragarrien testigantza dira.

Informaziozko itsaso zabalean, dena halabeharrez berdintzen da. Titularrek elkarren antza dute, albisteak errepikatuta azaltzen dira, diseinuak berdin-berdinak dira; adierazlea guztiz ikusgarri bilakatzen da ur-azalean eta uretako motoaren potentziaren azpian gertakaria, edozein gertakari, baliogabe bilakatzen da?

Gertakari bakoitzaren garrantzia atsedetik gabe berritutako artxibategiaren mugagabetasunean barreiatzen da. Izugarrizko artxibategi orojalea, aldi berean, gure altxor bakarra dena, gure ondasunik preziatuena; izan ere, munduan igaro izanaren lekuko da eta munduari egiten diogun eguneroko itzuleraren testigantza ematen du.

Xabier Gantzarain.